

## **EPEZ XIV BEKAK (ERASMUS+): OHIKO GALDERAK**

### **Zeintzuk eska dezakete beka?**

UPV/EHU<sup>n</sup>, ondorengo titulazioren bat ikasten ari diren azken ikasturteko (2018/2019) ikasleek: lizentzia/ingeniaritza/arkitektura/gradua edo master ofiziala.

### **Berezko titulu bat ikasten ari banaiz beka eska dezaket?**

Ez, UPV/EHUko master ofiziala izan behar du.

### **Noiz egingo dira praktikak Europako enpresaren edo erakunderen batean?**

Behin ikasketak bukatzean 2018/2019 ikasturte akademikoan (2019ko ekaina-urria) titulua eskuratu duten pertsonak.

### **Ikasketak 2019ko martxoan bukatu baldin baditut programan parte har nezake?**

Ez. Gehienez urtebete igaro daiteke ikasketen eta praktiken amaiera daten artean.

### **Adin mugarik ba al dago?**

Ez, baina batez ere esperientzia gutxiko edo gabeko gazteentzako programa da.

### **Lehenago ERASMUS mugikortasunen batean parte hartu duten pertsonak programan izena eman dezakete?**

Bai, beti ere **guztira 9 hilabete baino gehiago** parte hartu ez badute matrikulatua dauden zikloaren baitan.

### **UPV/EHU<sup>n</sup> master ofizial bat ikasten ari naiz, eta karreraren baitan 9 hilabete baino gehiago eman nituen ERASMUS ikasle. EPEZ XIV programan parte har dezaket?**

Bai; bederatzi hilabeteren muga ziklo bakoitzari baitagokio modu independentean.

### **UPV/EHUko master ofizial bateko lehen ikasturtean ari naiz. EPEZ XIV programan parte har dezaket?**

Ez; parte hartzeko baldintzetako bat ondorengo baita: 2018/2019 ikasturte akademikoaren baitan (2019ko ekaina-urria) titulua eskuratu izana.

### **Zer adierazi nahi da merezimendu espezifikoekin?**

Elkarrizketa pertsonala, CVaren ebaluazioa, motibazioa...

### **Lanean arituz gero, programan parte hartzea eska daiteke?**

Bai, EABA/DARDEa aurkeztuz gero (agiri horrek ziurtatzen duena da LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzuan alta egina izatea). Dokumentu hori UPV/EHUko edozein Enplegu Gunetan lor daiteke (derrigorrezkoa EAeko herritarrentzat bakarrik).

### **Noiz aurreikusten da praktiken hasiera atzerriko herrialdeetan?**

2020ko otsaila / martxoan.

### **Zenbat irauten dute praktikek?**

3 hilabete.

### **Zeintzuk dira helmuga herrialdeak?**

Austria, Irlanda, Italia, Malta, Portugal, Polonia eta Txekiar Errepublika.

### **Non lor dezaket Europass CV eredia ingelesez?**

<https://bit.ly/2AkQYIG>

### **Atzerriko hizkuntzen mailen ezagutza nola frogatu dezaket?**

Ziurtagiri ofizialen bidez (University of Cambridge, Hizkuntz Eskola Ofiziala, IELTS, TOEFL...).

### **Izen-ematea web bidez egin al daiteke?**

Bai, formularioaren bidez modu telematikoan. Lehenetsitako aukera da.

### **Bekak zer hartzen du bere gain?**

Asegurua, atzerriko herrialdean bazkide bitartekariaren laguntza, praktikaren bilaketarako kudeaketa eta diru-laguntza ekonomikoa.

### **Noiz ezagutuko da praktiketarako enpresa zein den?**

Atzerriko enpresaren datuak azken momentuan izango dira eskuragarri; irteera baino egun gutxi batzuk lehenago.

### **Deialdi honetarako eskaerak aurkezteko epea noiz amaituko da?**

2019ko uztailaren 16an.